



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko irailaren 16a

101. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A :

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/ITP-00021. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak itxarote-denborak murrizteari begira legegintzaldi amaiera bitartean abian jarriko dituen politikei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (3. or.).
- 10-22/ITP-00022. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak udalen finantzaketari buruz duen politikari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztu du (3. or.).
- 10-22/ITP-00023. Interpelazioa, gobernuaren jardunaren gaineko kontrolaren eta gardentasun-betebeharraren arloko politika orokorrari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 10-22/ITP-00024. Interpelazioa, Nafarroako hezkuntza sistemako ikasleen eskolaldiari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 10-22/ITP-00025. Interpelazioa, Nafarroako ikastetxeen autoebaluazio planari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 10-22/ITP-00026. Interpelazioa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloak (0-3 urte) duen egoerari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 10-22/ITP-00027. Interpelazioa, langile autonomoak babesteko politikei buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 10-22/ITP-00028. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren energia arloko politikei buruzkoa. María Elena Llorente Trujillo andreak aurkeztu du (7. or.).
- 10-22/ITP-00029. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak bizikidetzaren arloan duen politikari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 10-22/ITP-00030. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikaren arloko politikari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 10-22/ITP-00031. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak arreta presentziala berreskuratzeko dituen politikei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (8. or.).

- 10-22/MOC-00056. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako bide publiko eta ibilbide berdeei buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan. Garapen Ekonomiko eta Enpresariareko Batzordea onetsia (9. or.).
- 10-22/MOC-00020. Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da banku-entitateen bezeroendako arreta presentzialerako gutxieneko zerbitzuak arautu ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- 10-22/MOC-00071. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuari exiji diezaion Hitzarmen Ekonomikoari buruzko abenduaren 26ko 28/1990 Legean ezarritakoa betetzea. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- 10-22/MOC-00076. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du, azterketa xeheagoa egin dezan uda honetan tenperatura altuek sorrarazitako gehiegizko hilkortasunaren inguruan, zeharkako neurriak proposatzeko beroak jendearengan dituen ondorioak prebenitu edo arintze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- 10-22/MOC-00068. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira arduraz jokatu eta inbertsioen lehentasunak, bereziki Abiadura Handiko Trenaren proiektuari dagozkionak, birpentsa ditzaten. Osoko Bilkurak ezetsi du (12. or.).
- 10-22/MOC-00072. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da PFEZaren tarifaren deflakta dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (12. or.).
- 10-22/MOC-00073. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan “Nafarroako estepako hegaziak berreskuratu eta kontserbatzeko plana” onetsi eta “Nafarroako agroestepak” izeneko babes bereziko eremua izendatzen duen foru dekretuaren proiektua. Osoko Bilkurak ezetsi du (13. or.).
- 10-22/MOC-00061. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egokitu dezan enplegurako eta funtzio publikoan sartzeko eskaintza publikoak arautzen dituen araudia, gordetze aldera erreserbako % 2ko kupora iristen diren genero-indarkeriaren biktimen nortasuna. Mozioa erretiratzea (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 10-22/PES-00247. Galdera, despopulazioaren arriskuan dagoen landa eremurako gizarte berrikuntzako ekosistema multzo bat sortu, kudeatu eta zuzentzeko zerbitzu bat kontratatzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (14. or.).
- 10-22/PES-00248. Galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Planari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (15. or.).
- 10-22/PES-00249. Galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Planaren betetze mailari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (15. or.).
- 10-22/PES-00250. Galdera, Hezkuntza Departamentuak antolatutako ibilbideetako eskola garraioari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (16. or.).
- 10-22/PES-00251. Galdera, Nafarroako Gobernuaren tutoretzapeko hiru adingabe ustez prostituitu eta abusatzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 10-22/CDP-00011. Nafarroan pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko estrategiei buruzko Osoko Bilkura monografikoaren eztabaida antolatzeko arauak (18. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/ITP-00021. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak itxarote-denborak murrizteari begira legegintzaldi amaiera bitartean abian jarriko dituen politikei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuak itxarote-denborak murrizteari begira legegintzaldi amaiera bitartean abian jarriko dituen politikei buruzko interpelazioa, Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturikoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

en Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Gobernuari, osasungintzako itxarote-zerrendak kudeatzeko politikari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Legegintzaldiaren hirugarren urtea bete denan, Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak ez du neurririk ezarri osasun arloko itxarote-zerrenden egoera hobetzeko; aldiz, gero eta diru gehiago gastatzen ari da peonada eta itunetan, baina ez dira eraginkorrak izan.

Jakin nahi dugu Nafarroako Gobernuak zer politika jarriko dituen abian legegintzaldi amaiera bitartean, itxarote-denborak murrizteari begira.

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

10-22/ITP-00022. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak udalen finantzaketari buruz duen politikari buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuak udalen finantzaketari buruz duen politikari buruzko interpelazioa, Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkezturikoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernuak udalen finantzaketari buruz duen politikari buruzko interpe-lazio hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Toki entitateen finantzaketa funtsezkoa da horiek herritarrei zerbitzuak eskaini ahal izateko; hori dela eta, beharrezkoa da jakitea zer politika garatuko diren alor horretan eta politika horien betetze-maila ezagutzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

10-22/ITP-00023. Interpelazioa, gobernuaren jardunaren gaineko kontrolaren eta gardentasun-betebeharraren arloko politika orokorrari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea gobernuaren jardunaren gaineko kontrolaren eta gardentasun-betebeharraren arloko politika orokorrari buruzko interpe-lazioa, Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturikoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapide-tzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Gobernuaren jardunaren gaineko kontrolaren eta gardentasun-betebeharraren arloko politika orokorrari buruzko interpe-lazio hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Gardentasuna, batez ere Nafarroako Gobernuak legea betetzeari buruzkoa, legezko betebeharra izateaz gain, herritarren kezka ere bada. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak alor horretan abian jarriko dituen politikak ezagutu nahi ditugu.

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

10-22/ITP-00024. Interpelazioa, Nafarroako hezkuntza sistemako ikasleen eskolaldiari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak Nafarroako hezkuntza sistemako ikasleen eskolaldiari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

COVID-19ak eragindako osasun krisiak ondorio garrantzitsuak izan ditu eskola-antolamenduari dagokionez. Horietatik esanguratsuena ikastetxe askotako eskolaldiaren aldaketa izan da, behar bada. Egoera horrek eztabaida sakona piztu du hezkuntza-komunitatean; hori dela eta, Nafarroako hezkuntza sistemako ikasleen eskolaldiari buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2022ko irailaren 7an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

10-22/ITP-00025. Interpelazioa, Nafarroako ikastetxeen autoebaluazio planari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak Nafarroako ikastetxeen autoebaluazio planari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

en Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Hezkuntzako kontseilariaren 45/2022 Foru Aginduan zehazten da Nafarroako ikastetxeek autoebaluazio-prozesu bat egiteko betebeharra. Prozesu horren xehetasunak Hezkuntzako zuzendari nagusiaren 276/2022 Ebazpenaren bidez ezarri ziren. Prozesu horrek eragin zuzena duenez Nafarroako hezkuntza sistemaren kudeaketan, Nafarroako ikastetxeen autoebaluazio planari buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

10-22/ITP-00026. Interpelazioa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloak (0-3 urte) duen egoerari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloak (0-3 urte) duen egoerari buruzko interpelazioa, Pedro José González Felipe jaunak aurkezturikoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako 0-3 zikloaren kudeaketa lehenetsuzko gaia izan da legegintzaldi honetan, bai administrazio publikoentzat bai gizartearentzat oro har. Gai horretan uztartzen dira lan, gizarte eta hezkuntza arloko interesak eta azken ikasturteetan gatazka etengabea izan da. Hori dela eta, Navarra Sumak Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloak (0-3 urte) duen egoerari buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

10-22/ITP-00027. Interpelazioa, langile autonomoak babesteko politikei buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak langile autonomoak babesteko politikei buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

40.000 langile autonomotik gora dago gure Foru Komunitatean, zailtasun handiak pairatzen dituzten ekintzaileak guztiak ere, eta gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoak era dramatikoagoan eragiten die enpresa handiei baino. Horregatik guztiagatik, langile autonomoak babesteko politikei buruzko interpelazio hau aurkezten dugu.

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

10-22/ITP-00028. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren energia arloko politikei buruzkoa.

MARÍA ELENA LLORENTE TRUJILLO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Elena Lorente Trujillo andreak Nafarroako Gobernuaren energia arloko politikei buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

en Elena Lorente Trujillo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Energiaren gaia erabateko lehentasuna duen gako politiko bihurtu da. Ikuspegi positibo batetik, Europak, Espainiak eta Nafarroak deskarbonizazio prozesuak azkartu eta energia fosilen mende-kotasuna ahalik eta gehien mugatzeko hartutako konpromisoengatik. Bestetik, ikuspegi negatibo batetik, inguruabar geopolitikoaren eraginez, energiaren sorkuntza-, banaketa- eta kontsumo-kostuen kontrola erabaki politikoaren funtsezko gakoa bihurtu da. Horregatik guztiagatik, energia arloko politikei buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Elena Lorente Trujillo

10-22/ITP-00029. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak bizikidetzaren arloan duen politikari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak Nafarroako Gobernuak bizikidetzaren arloan duen politikari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernuak bizikidetzaren arloan duen politikari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

San Fermin eguneko prozesioan izandako gertakariak agerian utzi dute asko dagoela egiteko bizikidetzaren arloan.

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

10-22/ITP-00030. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikaren arloko politikari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikaren arloko politikari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikaren arloan duen politikari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Euskararen Plan Estrategikoa ez da onetsi oraindik eta, hori dela eta, jakin nahi dugu zer politika gauzatzeko asmoa duen Gobernuak eta zergatik jarraitzen duen Planak onetsi gabe.

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

10-22/ITP-00031. Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak arreta presentziala berreskuratzeko dituen politikei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak Nafarroako Gobernuak arreta presentziala berreskuratzeko dituen politikei buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Azken legegintzaldian, eta bereziki COVID-19aren pandemia ondoren, Nafarroako Gobernuak herritarrei ematen dien arreta asko murriztu da, eta askotan horrek eragina du ematen den zerbitzuaren kalitatean. Jakin nahi dugu Nafarroako Gobernuak zer politika jarriko dituen abian legegintzaldi amaiera bitartean, arreta presentziala berreskuratzeari begira.

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

10-22/MOC-00056. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako bide publikoei eta ibilbide berdeei buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan.

GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEA ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak, 2022ko irailaren 6an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako bide publikoei eta ibilbide berdeei buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Legebiltzar honetan Nafarroako bide publikoei eta ibilbide berdeei buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, aipatu legea onesten ez den bitartean Plazaolaren bide berdea mantentzeko hitzarmen arautzaile bat adostu dezan ibilbidean dauden toki entitateekin, edo hala ez bada, Plazaola Turismo Partzuergoarekin berarekin, non zehaztuko baitira administrazio publiko bakoitzaren eta entitate turistikoaren betebeharrak eta eskubideak .

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako bide publikoen eta ibilbide berdeen sare bat sor dezan”.

Iruñean, 2022ko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00020. Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da banku-entitateen bezeroendako arreta presentzialerako gutxieneko zerbitzuak arautu ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko irailaren 8an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da banku-entitateen bezeroendako arreta presentzialerako gutxieneko zerbitzuak arautu ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, banku-entitateen bezeroendako arreta presentzialerako gutxieneko zerbitzuak arautu ditzan, adindunei eta herritarren beste kolektibo batzuei arreta irisgarri eta kalitatezkoa bermatzera bideratuak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, arreta presentzialerako, batez ere landa eremuan, pizgarriak eman diezazkien gure erkidegoan lan egiten duten banku-entitateei, finantza-zerbitzuen kontratazio publikoan klausula sozialak erabiliz.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, banku-entitateekiko lankidetzak formulak garatu ditzan Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioarekin batera, herritarrengandik gertuago dauden finantza-zerbitzuak ematea errazteko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Gobernuak onetsitako Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Plana garatzen jarrai dezan, azpimarra berezia jarriz beharizan gehien dituzten pertsonen eguneroko bizitzarako gaikuntza digitalean aurrera egiteko beharrean.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du finantza arloko bazterketaren arazoari hel diezaion, Adinekoen Kontseiluaren esparruan, eta jarraipena egin dezan Espainiako eta Nafarroako Gobernuek abiarazitako neurrien gainean”.

Iruñean, 2022ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00071. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuari exiji diezaion Hitzarmen Ekonomikoari buruzko abenduaren 26ko 28/1990 Legean ezarritakoa betetzea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko irailaren 8an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuari exiji diezaion Hitzarmen Ekonomikoari buruzko abenduaren 26ko 28/1990 Legean ezarritakoa betetzea”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Estatuko Gobernuari exiji diezaion Hitzarmen Ekonomikoari buruzko abenduaren 26ko 28/1990 Legean ezarritakoa betetzea, halako moduz non sortzen diren zerga berriak esparru horretan sartuko diren eta Foru Komunitatean kudeatu ahalko diren.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Hitzarmen ekonomikoan sar ditzan energia-enpresei eta banku- zein kreditu-entitateei ezarriko zaizkien aldi baterako karga berriak, Diputatuen Kongresuan eztabaidatzeko daudenak, Nafarroako Foru Komunitateari aitortze aldera karga berri horiek arautu eta kudeatzeko eskumena.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Kontseiluari txosten bat eska diezaion, Nafarroako Foru Araubidearen eskumenaren defentsa indartuko duena, ikusirik gaur egun zer idazketa duen energiaren arloko eta kreditu-entitate eta -establezimenduen arloko aldi baterako kargak jartzeko Legeak, Diputatuen Kongresuan berriki aurkeztu denak”.

Iruñean, 2022ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00076. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du, azterketa xeheagoa egin dezan uda honetan tenperatura altuek sorrarazitako gehiegizko hilkortasunaren inguruan, zeharkako neurriak proposatzeko beroak jendearengan dituen ondorioak prebenitu edo arintze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko irailaren 8an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du, azterketa xeheagoa egin dezan uda honetan tenperatura altuek sorrarazitako gehiegizko hilkortasunaren inguruan, zeharkako neurriak proposatzeko beroak jendearengan dituen ondorioak prebenitu edo arintze aldera".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du, azterketa xeheagoa egin dezan uda honetan tenperatura altuek sorrarazitako gehiegizko hilkortasunaren inguruan, zeharka-

ko neurriak proposatzeko beroak jendearengan dituen ondorioak prebenitu edo arintze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du, Osasun Ministerioari helaraz diezaion Estatuan, oro har, azken uda honetan heriotzen estatistikek izan duten igoera handiagatikoz kezka eta, halaber, premiazkoa dela epidemiologiako adituek behar diren aldaketak egitea datuak biltzeko sistemetan (MoMo eta heriotza-ziurtagiriak), Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Osasun Ministerioaren arteko koordinazio hobea egotea eta epe laburragoak ezartzea datuak biltzeko eta desbideratzeak azkar analizatzeko, hura leunduko duten neurriak ezartze aldera".

Iruñean, 2022ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00068. Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira arduraz jokatu eta inbertsioen lehentasunak, bereziki Abiadura Handiko Trenaren proiektuari dagozkionak, birpentsa ditzaten.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko irailaren 8an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du. "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira arduraz jokatu eta inbertsioen lehentasunak, bereziki Abiadura Handiko Trenaren proiektuari dagozkionak, birpentsa ditzaten.

Mozioa EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu zuen eta 2022ko irailaren 6ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00072. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da PFEZaren tarifaren deflakta dezan.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko irailaren 8an egindako bilkuran, mozio bat ezetsi du, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena PFEZaren tarifaren deflakta zezan. Mozioa María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztu zuen eta 2022ko irailaren 6ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2022ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**10-22/MOC-00073. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-
tzen da erretira dezan “Nafarroako estepako hegaztiak berreskuratu
eta kontserbatzeko plana” onetsi eta “Nafarroako agroestepak” izene-
ko babes bereziko eremua izendatzen duen foru dekretuaren proiektua.**

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko irailaren 8an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-
tzen da erretira dezan “Nafarroako estepako hegaztiak berreskuratu eta
kontserbatzeko plana” onetsi eta “Nafarroako agroestepak” izeneko babes bereziko eremua

izendatzen duen foru dekretuaren proiektua”. Mozioa Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu zuen eta 2022ko irailaren 6ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2022ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**10-22/MOC-00061. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-
tzen da egokitu dezan enplegurako eta funtzio publikoan sartzeko
eskaintza publikoak arautzen dituen araudia, gordetze aldera erreser-
bako % 2ko kupora iristen diren genero-indarkeriaren biktimen nor-
tasuna.**

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen da egokitu dezan enplegu-
rako eta funtzio publikoan sartzeko eskaintza publikoak arautzen dituen araudia, gordetze alde-

ra erreserbako % 2ko kupora iristen diren genero-indarkeriaren biktimen nortasuna, eta 2022ko uztailaren 1eko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-22/PES-00247. Galdera, despopulazioaren arriskuan dagoen landa eremurako gizarte berrikuntzako ekosistema multzo bat sortu, kudeatu eta zuzentzeko zerbitzu bat kontratatzeari buruzkoa.*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, despopulazioaren arriskuan dagoen landa eremurako gizarte berrikuntzako ekosistema multzo bat sortu, kudeatu eta zuzentzeko zerbitzu bat kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko

Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen denaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

2021eko ekainean Errealitate Sozialaren Behatokiaren Zuzendaritza Nagusiak espediente bat hasi zuen, deialdia egiteko proiektu lehiaketa baterako, epaimahaiaren esku-hartzearekin, despopulazioaren arriskuan dagoen landa eremurako gizarte berrikuntzako ekosistema multzo bat sortu, kudeatu eta zuzentzeko zerbitzu bat kontratatze aldera.

Aipatu espedientean Kontu-hartzailletza delegatuaren eragozpen-oharra izan ondoren,

1. Zer jarduketa egin zen horren inguruan?

2. Nafarroako Gobernuak orduko proiektu lehiaketa horren antzeko beste baterako deialdirik egin al du?

3. Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiagorik egin al du, bestelako formatu juridikoarekin, Behatokiak bilatzen duen helburua lortzeko? Zein?

Iruñean, 2022ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

10-22/PES-00248. Galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Planari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak 2021eko irailean Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Plana aurkeztu zuen, 28 ekimen garatzeko 30 milioi euroko inbertsioa zekarrena.

1. Betearazpen tekniko eta aurrekontukoa (bakoitzari dagokion partida zehaztuta) 28 ekimen bakoitzeko, 2021ean.

2. Ekimen bakoitzeko xehakatzeta (halakorik dagokionean) parte-hartzaileen kopurua, sexu, adin eta tokiaren arabera.

3. Betearazpen tekniko eta aurrekontukoa (bakoitzari dagokion partida zehaztuta) 28 ekimen bakoitzeko, 2022an, gaur egun arte.

4. Ekimen bakoitzeko xehakatzeta (halakorik dagokionean) parte-hartzaileen kopurua, sexu eta adinaren arabera.

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

10-22/PES-00249. Galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Planaren betetze mailari buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Planaren betetze mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

• Inklusio eta Gaikuntza Digitalaren 2021-2025 aldiko Planaren gaineko informazio xehakatu

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

10-22/PES-00250. Galdera, Hezkuntza Departamentuak antolatutako ibilbideetako eskola garraioari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Hezkuntza Departamentuak antolatutako ibilbideetako eskola garraioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– 102/2017 Foru Aginduaren esparruan, zenbat ikasle daude Batxilergoan, Oinarrizko Lanbide Heziketan eta Lanbide Heziketako erdi mailako graduatan, eskola garraioaren eskubidea bermatua eduki ez eta aukera izan dutenak, azken lau ikasturteetan, Hezkuntza Departamentuak antolatutako ibilbideetan postu hutsak baliatzeko?

– Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspenaren eta eskura dituen datuen arabera, zenbat ikasle daude Batxilergoan, Oinarrizko Lanbide Heziketan eta Lanbide Heziketako erdi mailako graduatan, eskubide osoz baliatuko dituztenak Hezkuntza Departamentuak antolatutako ibilbideak, 35/2022 Foru Aginduan oinarriturik?

– Zenbat ikasle daude Batxilergoan eta Lanbide Heziketako erdi mailako graduatan, Departamentuak antolatutako ibilbiderik ez edukitzeagatik banakako laguntzak eskuratuko dituztenak?

Iruñean, 2022ko ekainaren 8an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

10-22/PES-00251. Galdera, Nafarroako Gobernuaren tutoretzapeko hiru adingabe ustez prostituitu eta abusatzeari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuaren tutoretzapeko hiru adingabe ustez prostituitu eta abusatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188: artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkez-

ten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Gaur, irailak 8, prentsan agertu da 3. Instrukzio Epaitegiak erabaki duela hainbat pertsona prozesatzea, ustez 16 urteko hiru adingabe prostituitu eta abusatzeagatik, zeinak Nafarroako Gobernuaren tutoretzapean baitzeuden.

1. Noiz izan du Eskubide Sozialetako Departamentuak auto horren berri? Eta Nafarroako Gobernuko beste organoren batek?

2. Zer zentro eta araubidetan zeuden adingabeak gertakizunak izan zirenean?

3. Adingabeen ihesaren ondoren, noiz izan zuen Eskubide Sozialetako Departamentuak hori gertatu izanaren berri? Gaiaren gaineko agiri eta txosten guztiak eranstea eskatzen da.

4. Adingabeen ihesaren ondoren, zer jarduketa egin zuen Eskubide Sozialetako Departamentuak aipatu adingabeekin? Aipatu jarduketak biltzen dituzten agiri eta txosten guztiak eranstea eskatzen da.

Iruñean, 2022ko irailaren 8an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-22/CDP-00011. Nafarroan pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko estrategiei buruzko Osoko Bilkura monografikoaren eztabaida antolatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroan pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko estrategiei buruzko Osoko Bilkura monografikoaren eztabaida antolatzeko honako arau hauek onestea:

“1. Eztabaidagaiarekin zuzeneko zerikusia duten erabaki-proposamenak aurkezteko epea Osoko Bilkuraren aurreko eguneko 12:00etan bukatuko da. Talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak gehienez ere 3 proposamen aurkeztu ahalko ditu.

Erabaki-proposamenak aurkezteko epea bukatuta, egun horretan bertan Mahaiak proposamenak onartuko ditu, eta talde parlamentarioen edo foru parlamentarien elkartearen eledunei helaraziko dizkie, azter ditzaten.

2. Eztabaida talde parlamentarioen eledunen mintzaldiarekin hasiko da eta hogeita minutu irauten du gehienez ere. Mintzaldi horretan eledunek haien jarrera azaldu beharko dute, bai eta haien proposamenak defendatu eta gainontzeko talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko erabaki-proposamenei buruz duten iritzia azaldu ere. Mintzaldi-hurrenkera eza-

rriko da kide-kopuruaren arabera, kopuru handienekotik hasi eta kopuru txikiena duenarekin bukatu.

Aurreko txanda bukatuta, Nafarroako Gobernuaren ordezkari bat mintzatzen ahalko da, eztabaidagai diren gaien inguruko bere jarrera azaltze aldera, iraupen berarekin.

Eztabaidan zehar, lehendakariak izapidera onartzen ahalko ditu in voce zuzenketak, baldin eta haien xedea errakuntza eta akats teknikoak zein terminologiakoak edo gramatikakoak zuzentzea baldin bada. Gainerakoan, soilik inongo talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarterik aurka azaltzen ez bada onartzen ahalko dira zuzenketa horiek.

3. Proposamenen eztabaida amaiturik, 2. arauan ezarritako hurrenkera jarraituz bozkatuko dira. Talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzak egindako proposamenak batera bozkatuko dira. Halere, edozein eledunek hala eskaturik, banaka bozkatzen ahalko dira”.

2. Arauak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezten agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

